

A través del desierto, Dios nos guía hacia la libertad

Mensaje de Cuaresma 2024

Un año más, la Cuaresma llama a nuestras puertas invitándonos a volver a Dios. Estos cuarenta días de preparación para la Pascua nos pueden servir para poner nuestro corazón en sintonía con Dios y con los demás. Se nos llama a la conversión, a adentrarnos en ese figurativo desierto que nos ayuda a tomar distancia y considerar mejor la realidad de nuestra vida a la luz del Señor y su Palabra. Se trata de un verdadero camino espiritual, de una nueva oportunidad para vivir la alegría del Evangelio, la de quienes se encuentran con Jesús (cf. *EG*, 1).

Acojamos la Cuaresma como el tiempo fuerte en el que su Palabra se dirige de nuevo a nosotros: «Yo soy el Señor, tu Dios, que te hice salir de Egipto, de un lugar de esclavitud» (*Ex* 20,2). Es tiempo de conversión, tiempo de libertad. El desierto es el espacio en el que nuestra libertad puede madurar en la decisión personal de no volver a caer en tantas esclavitudes que nos atrapan. La Cuaresma es un tiempo propicio para encontrar nuevos criterios de juicio sobre las cosas a la luz del Evangelio. Sin duda, esta Cuaresma puede ser para todas y para todos un tiempo de gracia y renovación en el que el desierto puede volver a ser el lugar del primer amor (cf. *Os* 2,16-17).

La Cuaresma, en definitiva, nos ayuda a volver a nuestro corazón, a nuestro centro más profundo, y resintonizar nuestra vida con el Evangelio. Como os decía en el mensaje del año pasado, «se trata de un tiempo litúrgico fuerte; un tiempo también de prueba, en el que vivimos —en la intimidad con Dios—, un combate espiritual». Luchemos y demos la batalla contra el pecado y contra el mal, contra sus efectos en nosotros y, sobre todo, contra sus causas. Luchemos contra todo aquello que nos oprime personalmente y como sociedad. Liberémonos de todo aquello que no suena a la música del Evangelio.

Las tradicionales armas —ayuno, limosna y oración— junto a otras prácticas cuaresmales, nos ayudan. Con esta orientación, un año más os vuelvo a proponer algunas cosas sencillas y concretas que nos pueden servir en este camino:

1. *Escuchar la Palabra de Dios cada día.* Las lecturas de la liturgia diaria de la Cuaresma nos pueden servir de itinerario. Hay muchos recursos para ello. También en internet. Es un buen tiempo para escuchar un poco más su palabra y un poco menos la nuestra.
2. *Un gesto solidario.* Donar la cantidad de dinero equivalente a una jornada de trabajo para un proyecto concreto de ayuda a la gente sin techo. Puedes dividirlo que ingresas al mes por 30 y dedicar ese importe al proyecto diocesano de “Hotzaldi” para personas sin hogar. Cáritas nos facilita la información para poder hacer esa aportación. [KUTXABANK: ES04 2095 5001 0110 6264 4512 / LABORAL KUTXA: ES55 3035 0060 4906 0011 1009 / Bizum 38029 (Gesto)].
3. *Un sacramento.* El sacramento de la penitencia o reconciliación puede ser para ti una buena oportunidad para renovar tu vida cristiana y experimentar la fuerza del perdón y de la misericordia de Dios. Te invito a que a lo largo de la cuaresma redescubras el gozo y la paz que produce en ti este Sacramento. No dudes en acercarte a algún sacerdote para poder confesarte bien. Tal vez como hace tiempo no lo hacías. Igualmente, te invito a participar en tu parroquia, si es el caso, en los actos y celebraciones penitenciales programados.
4. *Un Via Crucis:* Es costumbre en las comunidades cristianas celebrar y orar con el Vía Crucis. Te invito a que no dejes de participar en esta oración cuaresmal con tu comunidad. Además, este año, la tradicional marcha a Aránzazu tomará esa orientación oracional y penitencial. Te invito a caminar, en comunidad de hermanos, el sábado anterior al Domingo de Ramos, orando, acompañando a Jesús en su camino hacia el calvario. Somos un pueblo unido, que quiere caminar en comunión. Todos juntos, niños, jóvenes y adultos, construimos la Iglesia del Señor. Estemos atentos a la organización de este evento y no dejemos de participar.

Que el Señor nos de la gracia de vivir una Cuaresma que nos renueve y nos ayude a todos a alcanzar esa tierra prometida hacia la que caminamos cuando salimos de la esclavitud. Es el sueño de Dios hacia el que nos orientamos. La Cuaresma —nos dice el Papa Francisco— «no es un doloroso camino de agonía, sino de parto». La luz de la Resurrección ilumina el camino de la Cuaresma y nos anuncia un siempre posible nuevo nacimiento.

In Corde Matris,

✠ Fernando Prado Ayuso
Obispo de San Sebastián

Basamortuan zehar, Jainkoak askatasunera bideratzen gaitu

2024ko Garizumako Mezua

Beste urte batez Garizuma ate-joka dugu Jainkoagana itzultzeko gonbita eginez. Pazkorako berrogei eguneko prestaldia baliagarri gerta dakiguke gure bihotza Jainkoarekiko eta besteekiko sintonian jartzeko. Bihotz-berritzeko deia egiten zaigu itxurazko basamortu horretan murgiltzeko, bertan gauzekiko tartea hartu eta gure bizitza Jaunaren eta bere Hitzaren argitan hausnartzeko. Egiazko bide espiritual bat da, Ebanjelioaren poza, Jesusekin topo egiten dutenen poza, bizitzeko aukera berri bat (ik. *EG*, 1).

Onar dezagun Garizuma bere Hitza guri zuzentzen digunaldi berezi bezala: «Neu nauzu Jauna, zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena» (*1r* 20, 2). Bihotz-berritzeko aldia da, askatasun aldia. Basamortua, gure askatasunak heldutasuna iristeko gunea da, zapaltzen gaituzten hainbeste murrizketaren ez erortzea erabakiz. Ebanjelioaren argitan erabakiak hartzeko irizpide berriak aurkitzeko garai egokia da Garizuma. Zalantza gabe, Garizumaldi hau grazia eta eraberritze garaia izan daiteke, basamortua lehen-maitasunera itzultzeko gune gerta daitekeelarik (ik. *Os* 2, 16-17).

Azken finean, gure bihotzera, geure barne-barnera itzultzen laguntzen digu Garizumaldiak, gure bizitza Ebanjelioarekin bat etor dadin. Joan zen urteko mezuan esan nizuen moduan, «liturgialdi berezia da; baita probaldia ere, eta borroka espirituala biziko dugu Jainkoarekiko intimitatean». Borroka dezagun eta guda gaitetzen bekatuaren eta gaitzaren kontra, gudan duten eraginaren kontra eta bereziki horien sorburuaren kontra. Borroka dezagun era pertsonalean nahiz gizarte-mailan zapaltzen gaituen orenen kontra. Aska gaitetzen Ebanjelioaren doinua ez duen zarata guztitik.

Betiko armek —baraua, limosna eta otoitza— Garizumako beste ekintza batzuekin batera, lagundu egiten digute. Asmo horrekin, aurten ere gauza erraz eta zehatz batzuk proposatzen dizkizuet, biderako lagungarri izan ditzakegulakoan:

1. *Jainkoaren Hitza egunero entzutea*. Garizumaldiko eguneroko liturgiaren irakurgaiak bidelagun izan ditzakegu. Lagungarri asko dago horretarako. Baita interneten ere. Bere hitza gehiago eta gurea gutxiago entzuteko garai ona da.
2. *Elkartasun keinu bat*. Lanaldi bati dagokion diru-kopurua etxerik gabeko pertsoneri laguntzeko proiektu zehatz baterako ematea. Hilean jasotzen duzuna 30engatik zatitu eta diru hori eman diezaiokezu etxerik gabeko pertsonentzat elizbarrutiak duen “*Hotzaldi*” proiektuari [KUTXABANK: ES04 2095 5001 0110 6264 4512 / LABORAL KUTXA: ES55 3035 0060 4906 0011 1009 / Bizum 38029 (Keinua)].
3. *Sakramentu bat*. Penitentziaren edo adiskidetzearen sakramentua aukera ona izan daiteke zure kristau-bizitza berritu eta Jainkoaren barkamenaren eta errukiaren indarra bizitzeko. Garizuman zehar Sakramentu horrek zugar sortzen duen poza eta bakea aurkitzeko gonbita egiten dizut. Ez izan zalantzarik ongi aitortzeko apaiz batengana gerturatzeko. Beharbada, aspaldi egin ez duzun moduan. Era berean, zure parrokiaren antolatutako penitentzia ekitaldi eta ospakizunetan parte hartzeko deia luzatzen dizut.
4. *Gurutze bidea*. Ohitura da kristau elkarteetan Gurutze bidea ospatu eta otoitz egitea. Ez ezazu baztertu Garizumako otoitz hori zure elkartearekin egiteko aukera. Gainera, urteroko Arantzazurako igoerak aurten otoitz eta penitentzia zentzu hori izango du. Erramu Igandearen bezperan senide-elkartea osatuz bidea egiteko deia egiten dizut, otoitz eginez eta Jesusi kalbariorako bidean lagunduz. Batasunean bidea egin nahi duen herri elkartua gara. Haur, gazte nahiz heldu, denok osatzen dugu Jaunaren Eliza. Erne egon gaitezen ekitaldi honen antolakuntzarekin eta ez dezagun albora utzi.

Jaunak eman diezagula Garizuma berrituko gaituen bizitzeko grazia, esklabotza utzi eta bidean jarriz agindutako lurraldera iristen lagun diezagun. Hori da bidetzat hartu dugun Jainkoaren ametsa. Frantzisko Aita Santuak dio Garizuma ez dela «heriotza bide mingarria, erditze bidea baizik». Piztueraren argiak betetzen du Garizumako bidea eta beti gerta daitekeen jaiotza berria iragartzen digu.

In Corde Matris,

✠ Fernando Prado Ayuso
Donostiako Gotzaina